




abarketa 'espartin, apreta'	«—Abarketarik eta abarkarik ez dau jazten inork gaur.»	(139)
abazuza 'txingorra, inetazia'	«Harriak eta galipotak estutu egiten nabe, eta lehortu. Jo abazuzak ere noizik behin.»	(25)
adikor 'samur, atsegin'	«...berba gogorak jaurtitzera etorri beharrean, berba adikor eta irri- barre samurrez natorkizue...»	(70)
aginean 'zorian, beharrean'	«Mintzen berezkotasun etorritsua ito aginean darabil Idatzek.»	(32)
ahuntzaren gauerdiko eztula 'ezerez, balio gabea'	«Emaginaren jakituria eta esanak eta ahuntzaren gauerdiko eztula , bardin samarrak.»	(36)
aieneka 'erostaka, kexaka'	« Aieneka dabil aspaldion, aieneka geratu barik.»	(24)
alda-maldaka 'alde batetik bestera'	«Kale arterik kale arte, karatularik gabe orain, han doa Zaldibi alda-maldaka , kulunkan, zalantzan, aurrera eta aurrera.»	(78)
aldoka-maldoka 'kulunkan'	«Trinkilin-trankalan, aldoka-maldoka , topoz-topo, aurrera doaz auto gazte- ak ere tren zaharraren ondotik.»	(114)
anker 'gaizto, krudel'	«Miru zahar ankerraren erpapatetan dago eta, hegazka eta hegazka ibili arren ezin hegazik egin, ezin ezelan ere.»	(162)
anpulu 'malko'	«Dizdizka ditu negar anpuluak bere begi beilegietan.»	(109)
arerio 'etsaia'	«...bata bestearen birtuteak adierazoz eta arerio zitalen jokabide o- kerrak gorrotatuz.»	(68)
arrainkari 'arrantzalea'	«Eta arrainkariak haltz baten adarretik eskegita itxi daben transistora kantatzen hasi da...»	(109)
arrapaladan 'arinetan, presaka'	«Halakoren baten, atea apurtu eta barrura sartu zirean arrapaladan kanpotarrok.»	(62)
ateralditsu 'burutsua, zorrotza'	«Irudimen onekoa eta ateralditsua zan Mintz, eta behingo baten ikasten zitu...»	(30)
azpilan 'konspirazioa'	«Bai, azpilana eta azpijana egiten dihardue lotsa galduko maltzur zantar batzuk...»	(67)
barauts 'bitsa, aparra'	«Kiratsa eta barautsa dariola dago ura.»	(106)
behingo batean 'berehala, segituan'	«Eroan, eta behingo baten banatuko deusuez han hango banatzaile entzutetsuak.»	(33)
behingoan 'berehala, laster'	«...eta atxilotu eta zoroetxe batera sartu ebezan behingoan .»	(50)
behinola 'behin batean'	«Emagina etorri jakon burura bat-batean Erranbideri, emagina eta behinola emaginak esandakoa.»	(36)
beilegi 'horia'	«Iluntzeko argi ilunetan begi beilegi biak bizturik, badoa Zaldibi.»	(75)
beldurkilik 'beldurrez beterik'	«—Zertan ete dator? —galdetu eban astamak ere, beldurkilik astaita besarkatuz.»	(61)
berdoztu 'more jarri'	«Mintz ere ubeldu, berdoztu , morantzatu egin zan.»	(37)
beren-beregi 'horretarako bereziki, aproposa'	«Baegoan egon ere beren-beregi egindako zulo bat...»	(125)
bide-zidor 'mendiko bidexka'	«Bere aita-amen habi epeletik bide-zior baten erdira jausi ondoren, estu eta larri dabil txorikumatxo bat.»	(79)



bikoitz 'bikia'	«Erranbideren etxean bikoitzak jaio dira, bikoitzak eta soinkideak...»	(27)
bilinbolaka 'itzulipurdika'	«... bilinbolaka ibiltaldia egin ondoren, harriarte baten geratu da, mailatu-mailatu eginda.»	(114)
birrindu 'suntsitu, txikitu'	«Eta birrindu behar badira okerrok, birrindu, erruki barik, eta lurperatu.»	(70)
bitsetan 'antsiaz, pozik'	«Eta haiei begira egon zan gero, luzaro eta bitsetan.»	(142)
bunbuilo 'burbuila'	«...hegoei eta buztanari eraginez, jauregira sartu zan arrapaladan, bunbuilo lorratz txiki bat itxirik.»	(124)
destaina 'gutxiespena'	«Hantxe egozan, geldi eta mutu, noizean behin azpitik alkarri destainaz begiraturaz.»	(44)
dingilizka 'eskegita, zintzilik'	«Negar malko baltz bat dauka dingilizka dardar begi baten...»	(24)
doilor 'dongea, gaiztoa'	«Harrapatu, ba, doilorrok eta urrutiratu laister edo apurtu bizkar hazurrak maltzur zantarroi.»	(70)
dragoka 'aho zabalka'	«Arnasarik hartu ezinik egozan amurrainak, dragoka , zotinka, buztanka...»	(127)
emagin 'erditze erizain'	«Eta maiz gogoratzen eban haiek jaiotzean emaginak esanda- koa...»	(31)
entzutetsu 'ospetsua'	«Eroan, eta behingo baten banatuko deutesuez han hango banatzaile entzutetsuak .»	(33)
eratarra 'zuzenki'	«Beste hau ere egia da, baina eratarra .»	(47)
erdimin 'haurgintza mina'	«Ai! Hau da larria! Erdiminak ete dira?»	(131)
erdimintsu 'babestailea'	«Bere sabel erdimintsura sartu eban gau baltzak Uriburu (...).»	(34)
esparru 'barrutia'	« Esparru ito honetan bizi izango al gara beti?»	(116)
etorritsu 'berritsua, ateralditsua'	«Mintzen berezkotasun etorritsua ito aginean darabil Idatzek.»	(32)
ezbai 'zalantza'	«— Ezbaian zagoz?»	(33)
ezkaratze 'sukaldea'	«...ezkaratzean eskegita ipini zituan perniloc Katarrek.»	(142)
eztitan 'gustura, urduri'	«Hara eta hona, arineketan, izerditan, eztitan ebilzan telebisino- koak, irratikoak, periodistak.»	(37)
ganorabakotu 'arrote bihurtu'	«—Ganorabakoekaz dabilena... — Ganorabakotu . Badakit. Zuk zer dinozu, Erdikale?»	(46)
garnuena 'gernudebeku'	«Bihotzekoa dau, garnuena dau, bularretik dago, asmena ere...»	(106)
gogaikarri 'aspergarria'	«—Ez da izango baina, beti bide bardina ere gogaikarria da.»	(114)
gogaildu 'lur jo'	«Gutziz gogailduta , bihotz jausita dago orain Katar.»	(142)
goiztar 'goiz dabilena'	«Han, urrinean, kantatzen hasi ziran txori goiztar batzuk.»	(122)



gozakaitz 'tonu desegokikoa'	«Ugaraixoen gitarra zahar gozakaitzak lakartu egiten eben haizearen txistu eztsua...»	(28)
guleria 'apeta, guraria'	«...eta berak, ostera, guleria guztiak egiten deusuz zuri...»	(116)
harlandu 'harri landua'	« Harlanduz , marmolez, pinoteaz eta eskudoz jantzirik egoan Eskoikale.»	(44)
hauts-euri 'zirimiria, lanbroa'	«Galtzairuzko aterkin bat daroa eskuan, hauts-euria da eta, mara-mara.»	(76)
hede 'uhala'	«Izan ere, oso gogorra zan sarea, hedea lakoxea...»	(125)
higuingarri 'nazkagarria'	«—Arratoitzar zikin higuingarri ugarien paradisu.»	(109)
hilotz 'gorpu, hilik'	«Bide baztarrean hilda aurkitu ebela eta, ekidazuar batzuk ekarren, hilotz .»	(72)
hitz jario 'berbatsua'	«Ha jaiotzean Erranbidek esan ebanez, hitz jario bat zan, bertsolari jator bat.»	(30)
hozkirri 'hotz samarra'	«...zoroen zeinuak egiten dihardue haize hozkirriaren besoetan.»	(105)
hurreen 'antza, dirudienez'	«—Bai hurreen .»	(97)
indarge 'ahula'	«Erdi beterik / eta erdi hutsik / zahatoa; / ezin hobea / eta indargea / ardoa...»	(51)
indargetu 'ahuldu'	«Baina Arrankari sara barruan egoan oraindino, geroago eta argalago eta indargetuago .»	(131)
inorenak egin 'porrot egin'	«Eta zureak laster egingo dauala entzun dot.»	(45)
ipurdi 'enborraren beheko partea'	«Haitz punta bat jo, arte ipurdi bat jo...»	(114)
iruntzietara 'alderantziz'	«—Ederto! Egia da hori, baina iruntzietara . Beste hau ere egia da, baina eratarra.»	(47)
itandu 'galdetu'	«—Zugaitik? — itandu eutson harriturik eta urduri Eskoikalek.»	(48)
itsumutsuka 'begiratu gabe'	«... itsumutsuka joan ziran amurrain guztiak jauregirantz...»	(127)
izengatu 'izen ona kendu'	«...Lehoi bihozberatsuaren agintaritza eta gure serbitza izengatu ta arbuiatu gurarik...»	(68)
jauzika 'saltoka'	«Eta jauzika eta jausika, nonbaitera joan gura dau ...»	(106)
karabilkatsu 'bihurgune asko eginez'	«...aurrera karabilkatsu , sugelandara bat bezala, zoro-zoro.»	(107)
kargutu 'konturatu, ohartu'	«Baina, halan eta guztiz ere, badaezpadan..., ahaztu ez dakizun dinotsut, kargutu zaitez.»	(31)
ketu 'ketan ondu, lehortu'	«Eta egunak joan eta egunak etorri, ketu , sikatu eta ondu egin ziran pernilar.»	(142)
kilikolo 'desorekaturik'	«Gero, kilikolo egoan mahai baten hanka bat bardindu eban liburu bat eta erdiaz, eta gainerakoak jezarlekutzat erabiltzen ditu.»	(184)
kolorga 'kolorea galdata, zurbil'	«Praka zabla kolorga batzuk jantzi ditu Tximinok...»	(139)



kurrunka 'usoen urruma'	« Kurrunka dabilz uso maiteminduak.»	(54)
lain 'beste, adina'	«...Arrankari ez egoan gustura, eta bizirik egoteko lain baino besterik ez eban jaten...»	(128)
lakar 'latza, lehorra'	«...basamortu lakar honetan egon behar, bakar-bakarrik. Ai!»	(25)
lander 'behartsua, txiroa, pobrea'	«—Ez dira faltako landerrak zure lurraldean.»	(153)
larragorri 'eremu lehorra, latza'	«Gure esparrutik kanpora agiri diran larra ederrak...? Bai zera! Larragorriak bakarrik.»	(116)
lausotu 'lainotu, estali'	«Baina orain zikindu eta lausotu egin jakoz begiak.»	(108)
liluragarri 'zoragarria, xarmagarria'	«Erreka ertzeko lorak ere mila kolorez apaindu ziran eta usain liluragarri z bete eben inguru guztia.»	(123)
lirdinga 'itsaskorra, zikina'	«...hik merezi dituan ur ilunak / hik sortutako / lokaztegi lirdinga horiek...»	(111)
lor 'atsekabea, kezka'	«Zirriparra bihurri eta lorraren amurruagaitik berba gogorak jaurtizera etorri beharrean...»	(70)
lorratz 'arrastoa, ilada'	«...hegoei eta buztanari eraginez, jauregira sartu zan arrapaladan, bunbuilo lorratz txiki bat itxirik.»	(124)
mama 'ur' (haurrekin)	« Mama , mama gozoa gura dot. Amatxo!»	(109)
mara-mara 'astiro, emeki'	«Galtzairuzko aterkin bat daroa eskuan, hauts-auria da eta, mara-mara .»	(76)
margul 'kolorerik gabekoa'	«Gerizpetako lora bat zirudian, margul-margul.»	(37)
matrakan 'istiluan, eztabaidan'	«Gari-haziak baztar baten itxi, eta matrakan ibiltzen ziran zazpi anaiak.»	(133)
mehaztu 'egokitu, aukeratu'	«...Mintzen jakituria batu, mehaztu , zuzendu eta edertu egiten eban, eta idatzi.»	(30)
murrusaka 'orroeka'	«Aizkora batzuk ere baegozan han, eta behi zahar bi muru- saka ...»	(35)
muzinka 'keinu ezatseginez'	«Usainka eta muzinka , jira eta bira, inguru-minguru, han ibili ziran amurrairekin eta amurrairekin sarearen aurrean.»	(124)
nahasteborrastetu 'nahaspildu'	«Ezer ere ez; inguru guztiak nahasteborrastetu eta baketan dagoanari baketan itxi ez.»	(42)
oihartzundu 'ozendu, errepikatu'	«Barri zabaltzailearen deiak eta deiadarrak, arbolarik arbola ibili ondoren, oihartzundu egin ziran...»	(28)
oilanda 'oilo gaztea'	«Bildots bat atara eban Otsok beretzat, eta oilanda bat Azagarirentzat.»	(157)
olgetari 'jostari'	«Miru olgetariaren erpapatetan dago Erle.»	(162)
ondu 'jakiak lehortu'	«Eta egunak joan eta egunak etorri, ketu, sikatu eta ondu egin ziran pernilak.»	(142)
orroe 'basapiztien hotsa'	«Behin baten, kanta-kantari eta dantza-dantzari ziharduelarik, orroe zoli indartsu bat entzun zan.»	(60)
papar 'bularraldea'	«"Gu gara gu" ipintzen dau papar aldean Tximinoren nikiak...»	(139)



postura 'apostua'	«—Bai. Baina postura egingo deustut joan baino lehen.»	(156)
purrustadaka 'barreari ezin eutsiz'	«Barre purrustadaka hasi zan orduan Otso.»	(158)
purrustaka 'marmarka, protestaka'	«Zaldibik igesari emon deutso, marmar purrustaka eta arnasoska.»	(78)
samurkiro 'onean, eztiki'	«... samurkiro natorkizue, aberetarrok, nire narru eta hortzetako aberetar nabarrok.»	(70)
sapazto 'ile nahasia'	«Gazte sapazto bizkor odoltsua Ezkerkale, eta ameslaria.»	(44)
sasijakitun 'jakintsu ustekoa'	«Ez egin jaramonik sasijakitunen esanari.»	(32)
senetik atera 'haserre erazi'	«...Ezkerkaleren ekinak atara egin eban bere senetik . Eta ezin luzaro ixilik egon. Ezin.»	(44)
sits 'pipia, zomorro bat'	«...txabola baten bizi dira, hautsak eta sitsak jandako txabola zahar baten...»	(146)
soinkide 'gorputzez loturik'	«Erranbideren etxean bikoitzak jaio dira, bikoitzak eta soinki- deak..., soinkideak .»	(27)
sorki 'buruko zapia edo sukaldekoa'	«... sorki zaharrez, plastikozko botilaz, paperez eta gomaz egindako pitxi nabarmenak.»	(106)
sugelandara 'sugandila'	«...aurrera joian beti bere bidean, aurrera karabilkatsu, sugelan- dara bat bezela, zoro-zoro.»	(107)
taket 'hesietako haga'	«...geldi-geldi egoten da, taketa legez...»	(156)
tamalgarri 'penagarria'	«—Bai, badakit, astar. Tamalgarria benetan!»	(69)
tapotz 'tapoia, txotxa'	«Guatezko tapotz batzuk daroaz belarrietan, zaratearen zarateaz gortu ez daiten.»	(76)
temati 'burugogorra, egosgogorra'	«...azkenean baietza emon eutsen Erranbidek beronen adiskide tematiei .»	(34)
txairo 'dotorea, ederra'	«Bai zu txairo polita! Liluragarriak zure hitzak!»	(55)
txatxar 'kaskarra, mengela'	«Sendotu nagizu argal txatxar bat naz eta.»	(45)
txilindroi 'bideak egiteko zanpagailua'	«Eta txilindroiak ? Ai, alper-harri haundi bildugarria, zapaltzaile izugarria!»	(25)
txirripitxiolari 'kantari aspergaitza'	«Txori txirripitxiolarien bibolinen soinu koloretsuak zibuka ebilzan abesti artean.»	(28)
txirritxirri 'kilkerra'	« Txirritxirrien kirkir eguzkitsu etengabeak baretu egiten eban erreka atso-zahartuen txutxutxu zurrumurrutsua.»	(28)
ubel 'morea'	«Geroago eta ubelago , ostera, Mintz; ubelago eta bigunago.»	(38)
ugaraixo 'igela'	« Ugaraixoen gitarra zahar gozakaitzak lakartu egiten eben haizearen txistu ezitsua...»	(28)
uger 'herdoila'	«Azkenean ugerrak jan ebazan. Herdoitu egin ziran. Ezereztu.»	(58)
ulezto 'iletsua, sapaztoa'	«—Noizkoak zaree, ba? —otso argal ulezto batek.»	(63)



urardotu 'nortasunik gabea'	«...Erdikale urardotua , Erdikale bildurti zentzunduna, Erdikale ipurdi-munlari jatorra..., kaka, horixe!»	(42)
urruma 'orroea, zarata'	«Trumoi eta haizearen / urruma urduria / negarrez ikusirik / euri jaioparria!»	(53)
urten 'lotsagabea'	«Eta Ezkerkale urtenegia da, ausartiegia.»	(42)
zabar 'nagia'	« Zabar samarra bai baina, oso argia, alaia eta herrikoia zan Mintz.»	(30)
zahato 'zahagi txikia'	«Erdi beterik / eta erdi hutsik / zahatoa ; / ezin hobea / eta indargea / ardoa...»	(51)
zarra-zarra 'zaparradan'	«Euria zan kanpoan, zarra-zarra , eta oso ilun eta hotz egoan.»	(36)
zarrastan 'herrestan, arrastaka'	«Berebil burpila / gainetik zarrastan , / bideko bedarra / gitxik dabe laztan.»	(23)
zibuka 'kulunka'	«Badoa nonbaitera arineketan, itsu-mustuka, zibuka , bozina hotsean, ke	
zirkin 'mugimendua'	«Baina geldi egozan robot biak. Geldi-geldi. Ez eben zirkinik egin.»	(58)
zirriparra 'astrapala, iskanbila'	«Baina hainbeste zirriparra zertarako?»	(43)
zital 'doilorra, dongea'	«...bata bestearen birtuteak adierazoz eta arerio zitalen jokabide okerrak gorrotatuz.»	(68)
zoli 'fina, ernea'	«Bai belarri zoliak amurrainenak!»	(127)
zoli 'ozena'	«...kanta-kantari eta dantza-dantzari ziharduelarik, orroe zoli indar- tsu bat entzun zan.»	(60)
zorri hil biztua 'hantustea'	«— Zorri hil biztua baino pizti txarragorik ez dago.»	(41)